

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERNEDOKO UDALA

#### 2021eko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren dirubilketa

Rubén Martínez Crespo, Bernedoko Udaleko alkate naizen honek.

Jakinazten dut 2021eko urriaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, zerga honen 2021eko ordainagiriak:

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

##### I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2021eko urriaren 20tik abenduaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 21etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

##### II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

##### III. Gomendioak

Bernedoko Udalean izapidetu behar dira nola bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, hala helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bernedo, 2021eko irailaren 7a

*Alkatea*

*RUBEN MARTINEZ CRESPO*